

1. zirkularra (2022/07)

SUBIRANOTASUNA(K) AZTERGAI. IIIth International Conference on Nationalism

Bilbo, 2022ko azaroaren 17an

Antolatzailea: Subiranotasuna Europako Herrietan (SEH) masterra, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

CALL FOR PAPERS

EHUko Subiranotasuna Europako Herrietan (SEH) masterrak, *Nazionalismoa ikertuz* kongresuari jarraipena emanez, *Subiranotasuna(k) aztergai* kongresua antolatu du. Oraingoan, burujabetza kontzeptuaren inguruan lan egingo dugu. Finean, subiranotasunak botereaz dihardu: nork hartzen ditu erabakiak eta noren legitimitatearekin? Zeintzuk dira aukerak? Nondik osatu begiradak? Zein izango da etorkizuna? Nortzuen esku egongo da? Gai zabal eta konplexu horri helduko diogu aurkezten dugun kongresuan.

Kongresuaren gai orokorra aintzat harturik, **komunikazioak aurkezteko deia** zabaltzen dugu. Interesa dutenek **2.000 karaktere arteko abstracta** bidali beharko dute, bidalketa-epea **irailaren 19tik urriaren 14ra** izanik. Ondoren, Batzorde Zientifikoak **urriaren 24rako** jakinaraziko ditu onartuak izan diren proposamenak. Kongresuaren **hizkuntza** ofiziala euskara izango den arren, abstractak euskaraz, ingelesez, gaztelaniaz eta frantsesez bidal daitezke.

Abstractak lotura honen bidez bidali beharko dira: (--Epea zabaltzean eskuragarri--)

Zalantzak nazionalismoaikertuz@gmail.com posta elektronikoaren bidez argituko dira.